PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO DE GAS NATURAL A TRAVÉS DE LA CENTRAL DE CONTRATACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (EXPTE: X22006)

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato será el suministro de gas natural para los edificios e instalaciones de las entidades adheridas a este expediente de contratación a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa que se relacionan en el Anexo X del PCAP.

2. ALCANCE DEL CONTRATO

En el Estudio económico se relacionan los puntos de suministro y los consumos anuales estimados que se incluyen en el contrato. Las cantidades que se indican deben entenderse como orientativas, por lo que no supondrán compromiso de consumo, sino que éste dependerá de las necesidades existentes.

En el contrato se prevé la modificación del mismo con respecto del presupuesto calculado inicialmente por la diferencia de consumos con respecto al previsto, a la inclusión de nuevos puntos de suministro o baja de existentes o por la fluctuación de los precios debido a la variación de las componentes incluidas en la fórmula de cálculo de precio. Estas variaciones no podrán superar el 10% con respecto al presupuesto previsto y su valor se incluye en el valor estimado del contrato.

La Empresa adjudicataria ha de aceptar las instalaciones actuales y deberá tener completo conocimiento de la ubicación, naturaleza y uso de las instalaciones implicadas, del estado de todas las instalaciones de enlace correspondientes a los suministros que se les encomiendan hasta el equipo de medida y de las condiciones particulares de acceso ligadas a la seguridad y a la especificidad de los edificios, servicios e instalaciones.

3. MODALIDAD DE CONTRATO Y REQUISITOS

La empresa adjudicataria realizará, en nombre de cada entidad contratante y sin cargo alguno para ésta, las garantías y gestiones oportunas de acceso a redes con las empresas distribuidoras. La empresa comercializadora adjudicataria será la única responsable del pago de las tarifas de acceso al distribuidor. Se incluirán también las indemnizaciones, garantías y gestiones ante las compañías distribuidoras y otras comercializadoras para la modificación y cancelación de los contratos de suministro existentes en el momento de la firma de los contratos.

El contrato de suministro de gas comprenderá el correspondiente acceso y uso de la red para lo que la empresa adjudicataria suscribirá el correspondiente contrato con la empresa distribuidora. La empresa adjudicataria realizará, en nombre de cada entidad y sin cargo alguno para éstas, las siguientes actuaciones:

- Contrato y pólizas de acceso a la red con la empresa distribuidora. En este contrato se especificará que la empresa comercializadora adjudicataria es la única responsable del pago de las tarifas de acceso al distribuidor.
- Tener conocimiento de los parámetros de medida y facturación de las instalaciones objeto de la presente licitación, no pudiendo prevalerse de las diferencias con los citados datos facilitados en los pliegos y sus anexos, para pretender un cambio de precio o reducción de prestaciones durante el perlodo contractual. Ningún defecto o error de interpretación que pudiera contener o surgir del uso de documentos, estudios previos, suposiciones establecidas o información adicional suministrada a los licitadores por cada entidad, relevará a la compañía comercializadora adjudicataria de las obligaciones establecidas en el contrato.
- Disponer directa o indirectamente de los medios humanos y materiales suficientes para responder satisfactoriamente a todos aquellos compromisos derivados del cumplimiento del contrato a lo largo del plazo de duración del mismo.

4. EQUIPOS DE MEDIDA

El coste de los equipos de medida será repercutido a la entidad contratante mensualmente en concepto de alquiler en base a los precios oficiales (publicados en el BOE) de la distribuidora por este concepto, correspondiendo a ésta la instalación y mantenimiento de los mismos.

5. OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

La adjudicataria, previa autorización de cada entidad, actuará en nombre de ésta y realizará las gestiones autorizadas por la misma, ante la distribuidora y otras comercializadoras en los temas relativos a altas, modificaciones y cancelaciones de puntos de suministro de gas debiendo remitir la documentación correspondiente a dichas actuaciones a cada entidad.

De la misma manera, la adjudicataria se obliga a gestionar ante la distribuidora cualquier reclamación relativa a lectura y facturación, mantenimiento de las instalaciones y cualquier otra obligación exigible al distribuidor.

La empresa adjudicataria pondrá a disposición de cada entidad un canal de comunicación permanente que garantice la debida atención, información y resolución de incidencias relacionadas con el suministro de gas y contará con un Servicio de Urgencia 24 horas durante todos los días del año, facilitando teléfono móvil al que se pueda contactar. Además, designará una persona que será la interlocutora válida o gestor del contrato para cada entidad para este contrato.

Esta persona cumplirá al menos con las siguientes funciones:

- Tramitar las altas de los nuevos contratos.
- Tramitar modificaciones en los contratos actuales.

- Asesorar a cada entidad en las consultas que pudiera tener.
- Recibir y actuar sobre las posibles incidencias.
- Notificar y coordinar los posibles trabajos de mantenimiento o reparaciones que puedan afectar a cada suministro.
- Informar a cada entidad de incumplimientos en la calidad del servicio y asesorar técnica y legalmente a cada entidad, por posibles incumplimientos en la calidad del servicio en los aspectos de continuidad del suministro y calidad del producto, según la legislación vigente
- Instar a la distribuidora, a petición de cada entidad, a resolver las incidencias del servicio con prontitud, asegurando su calidad.
- Realizar las gestiones y reclamaciones administrativas oportunas ante la distribuidora a petición de cada entidad.

6. CALIDAD DEL SUMINISTRO

La empresa comercializadora adjudicataria se compromete a exigir a la empresa distribuidora, en nombre de cada entidad, que el gas natural se suministre con niveles de presión dentro de los límites legalmente establecidos para cada punto de suministro, con el caudal necesario y los niveles de calidad mínimos exigidos por la normativa vigente.

Especialmente se tendrán en consideración la continuidad del suministro, relativa al número y duración de las interrupciones del suministro. El adjudicatario deberá informar a cada entidad con suficiente antelación de aquellos cortes planificados en la red por motivos técnicos. Asimismo, la adjudicataria informará a cada entidad sobre la duración y causa de los cortes, o interrupciones no planificadas.

La empresa comercializadora adjudicataria realizará ante la empresa distribuidora las gestiones oportunas para que se reciba el suministro en las condiciones reglamentadas y en todo caso, trasladará a cada entidad las bonificaciones y/o descuentos que aplique la distribuidora conforme a la legislación vigente por incumplimiento de la calidad de suministro. A tal efecto, la empresa comercializadora adjudicataria proporcionará a cada entidad la relación de cortes de suministro y sus características en cada periodo de facturación.

Independientemente de lo señalado en el párrafo anterior, cada entidad, si se ve afectada por incumplimiento en la calidad del servicio, podrá reclamar la indemnización por daños y perjuicios que dicho incumplimiento le haya causado.

7. TARIFAS

Se incluyen las siguientes tarifas:

Tarifa de acceso	Consumo anual
RL.1	Hasta 5.000 kWh
RL.2	Hasta 15.000 kWh
RL.3	Hasta 50.000 kWh
RL.4	Hasta 300.000 kWh
RLTB.5	Hasta 1.500.000 kWh
RLTB.6	Hasta 5.000.000 kWh

Donostia-San Sebastián, 11/03/2022
EL JEFE DE SERVICIOS GENERALES

Fdo.: Eco José Pérez Domingo

GAS NATURALA GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIO ZENTRALAREN BITARTEZ HORNITZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA (X22006)

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua izango da, kontratazio-espediente honi atxikiak dauden erakundeen eraikin eta instalazioetarako gas naturala hornitzea Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bitartez. AKPPren X eranskinean ageri da aipatutako erakundeen zerrenda.

2. KONTRATUAREN HELMENA

Hornidura puntuak Azterketa ekonomikoan ageri dira, zenbatetsi diren urteko kontsumoak bezalaxe. Horiek jasoko dira kontratuan. Dena den, kopuru horiek orientazio gisa hartu behar dira; hau da, ez dute kontsumo-konpromisorik ekarriko, unean uneko premien arabera kontsumituko baita.

Hornidura-puntu batzuen premia desagertzen bada, puntu horiek kontratutik kendu eta beste batzuk ipini ahal izango dira. Kontratuan puntu berriak sartzearen ondorioz, zenbatetsitako kontsumoaren % 20etik gora gehitzen bada kontsumo orokorra, puntu berri horiek kontratutik kanpo uztea exijitu ahal izango du esleipendunak.

Enpresa esleipendunak onartu egin behar ditu oraingo instalazioak; gainera, zehatz-mehatz ezagutu behar du kontratuan jasotako instalazioen kokalekua, izaera eta erabilera, egin beharreko hornidurak neurketa-ekiporaino eramateko instalazio guztien egoera, eta eraikin, zerbitzu eta instalazioen segurtasunarekin eta berezitasunarekin lotutako sarbide-baldintza berezi guztiak.

3. KONTRATU MOTA ETA BETEKIZUNAK

Enpresa banatzaileen sareak erabiltzeko berme eta gestio guztiak enpresa esleipendunak egingo ditu, erakunde kontratatzaile bakoitzaren izenean, honentzako inolako zamarik eragingo ez duen moduan. Soil-soilik enpresa esleipendunaren ardura izango da banatzaileaz baliatzeko tarifen ordainketa. Kontratuak izenpetzeko unean martxan dauden hornikuntza kontratuak aldatzeko eta desegiteko, konpainia banatzaileekin eta gainerako merkaturatze enpresekin gauzatu beharreko kalte-ordainak, bermeak eta gestioak ere hor sartuko dira.

Gas hornidurako kontratuan sartuko da, halaber, kasuan kasuko sarea baliatu eta erabiltzea. Hori horrela, enpresa esleipendunak bidezko kontratua egin beharko du kasuan kasuko enpresa banatzailearekin. Enpresa esleipendunak honako jarduerak burutuko ditu, erakunde bakoitzaren izenean, honentzako inolako zamarik eragingo ez duen moduan:

- Sarea erabiltzeko kontratua eta polizak, enpresa banatzailearekin. Kontratuan zehaztu egingo da, enpresa esleipenduna dela, soil-soilik, banatzaileaz baliatzeko tarifen ordainketaren arduraduna.

- Honako lizitazio honen helburu diren instalazioak neurtzeko eta fakturatzeko parametroak ezagutzea. Beraz, Pleguetan eta eranskinetan emandako datu horietan izan daitezkeen gorabeherak ezin izango dira erabili, aitzakia gisa, kontratuak dirauen bitartean prezioa aldatzeko edo prestazioak murrizteko. Agiriek, aurretiazko azterketek, suposamenduek edota erakunde bakoitzak lizitatzaileei emandako informazio gehigarriak jaso edota eragin lezaketen akats edo interpretazio-oker bat bera ere ezin izango du erabili konpainia esleipendunak, kontratuan ezarritako betekizunak saihesteko.

- Kontratuak indarrean dirauen bitartean, kontratuko betekizunak behar bezala betetzeko behar beste giza baliabide eta bitarteko material izatea, zuzenean edo zeharka delarik ere.

4. NEURKETA EKIPOAK

Neurketa ekipoen kostua erakunde kontratatzaileari egotziko zaio, hilero-hilero, alokairu kontzeptupean. Kostu hori, banatzaileak kontzeptu honetan erabiltzen dituen prezio ofizialen (Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutak) arabera erabakiko da, eta hain zuzen ere, ekipo horien instalazio eta artapen gastuak, banatzailearen kontura ordainduko dira.

5. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak, erakunde bakoitzaren baimena jaso ondoren, honen izenean jardungo du eta baimentzen dizkion gestioak burutuko ditu, banatzailearen eta gainerako merkataletxeen aurrean, gas hornidurako puntuen izen-emateei, aldaketei eta deusezteei dagokienez; eta jarduera horietako bakoitzari dagokion dokumentazio osoa erakunde bakoitzari bidaliko dio.

Era berean, irakurketari eta fakturazioari, hala nola instalazioen mantentze lanei buruz gerta daitekeen erreklamazio oro, esleipendunak kudeatu beharko du banatzailearen aurrean, banatzaileari berari exiji dakiokeen bestelako edozein betekizun bezalaxe.

Enpresa esleipendunak, etengabeko komunikazio-bide bat ipiniko dio erakunde bakoitzari, behar bezalako arreta eta informazioa bermatu eta gas hornidurarekin lotutako gorabeherak konponduko direla ziurtatzearren. Urte osoan zehar, egunean 24 orduz, Larrialdietako Zerbitzua izango du; beraz, telefono mugikorraren zenbaki bat emango du, harremanetan jarri ahal izateko. Gainera, kontratu honetan sartutako entitate bakoitzerako baliozko solaskide edo kontratu-kudeatzaile bat izendatuko du.

Pertsona horrek honako zereginak izango ditu gutxienez:

- Kontratu berrien izen-emateak tramitatzea.
- Oraingo kontratuetan gerta litezkeen aldaketak tramitatzea.
- Erakunde bakoitzak egin dakiokeen kontsultetan aholkatzea.
- Gerta litezkeen gorabeheren berri jasotzea, eta jardutea.

- Hornidura bakoitzean eragin ditzaketen mantentze-lan edo konponketak jakinaraztea eta koordinatzea.
- Erakunde bakoitzari, zerbitzuaren kalitatean gertatutako ez-betetzeen berri ematea; eta, kalitatearen zerbitzuan, horniduraren jarraipenarekin edo produktuaren kalitatearekin zerikusia duen ez-betetzerik gertatu bada, erakunde bakoitzari teknikoki nahiz lege alorrean aholkatzea, gaur egun indarrean dagoen legeriaren arabera.
- Erakundeak hala eskatzen duenean, zerbitzuan gertatutako gorabeherak azkar eta kalitatea ziurtatuz egin ditzan exijitzea banatzaileari.
- Erakunde bakoitzak hala eskatzean, bidezko gestio eta erreklamazio administratiboak egitea.

6. HORNIDURAREN KALITATEA

Enpresa esleipendunak, enpresan banatzaileari exijituko dio, erakunde bakoitzaren izenean, hornitu beharreko gas naturala hornidura puntu bakoitzerako legez ezarritako presio mailen barruan hornitu dezala, behar besteko emariaz eta indarrean dagoen araudiak exijitzen dituen gutxieneko kalitate mailak betez.

Aintzat hartuko da, bereziki, horniduraren jarraipena, hau da, hornidura zenbat bider eteten den eta etendura bakoitzak zenbat irauten duen. Esleipendunak erakunde bakoitzari behar besteko aurretiaz jakinarazi beharko dizkio arrazoi teknikoen ondorioz sarean aurreikusi diren eteteak. Esleipendunak, halaber, aurreikusi gabeko etenduren arrazoia eta iraupena jakinaraziko dio erakunde bakoitzari.

Enpresa esleipendunak, gas hornidura araututako baldintzetan jasotzeko egin beharreko gestio guztiak egingo ditu enpresa banatzailearen aurrean; eta, horniduraren kalitatea ez betetzeagatik, indarreko legeriaren arabera banatzaileak egiten dituen hobarien edo deskontuen berri emango dio erakunde bakoitzari. Hori horrela, enpresa esleipendunak, fakturazio-epe bakoitzean gertatutako hornidura-etenduren zerrenda eta etendura bakoitzaren ezaugarriak jakinaraziko dizkio erakunde bakoitzari.

Aurreko atalean adierazitakoa hala izanik ere, zerbitzuaren kalitatea ez betetzearen ondorioak jasan dituen erakunde bakoitzak, ez-betetze horrek eragin dizkion kalte eta galeren ordaina exijitu ahal izango du.

7. TARIFAK

TARIFA	KONTSUMOA – kWh/urte
RL.1	< 5.000 kWh

RL.2	< 15.000 kWh
RL.3	< 50.000 kWh
RL.4	< 300.000 kWh
RLTB.5	< 1.500.000 kWh
RLTB.6	< 5.000.000 kWh

Donostia, 2022/03/11
ZERBITZU OROKORRETAKO ZERBITZUBURUA

Sin.: Fco José Pérez Domingo